

Azalpenezko testuaren kohesioa: testuinguratze kontzeptuala eta didaktika- rako zenbait zertzelada

Matilde Sainz

Hizkuntzaren didaktikan ikasleek testuak idaztean egiten dituzten saioetatik (egokiak, ez hain egokiak edo erabat desegokiak direla ere) abiatu behar du irakasleak apendizaiari harago joateko. Horretarako, ezinbestekoa da irakatsi nahi den objektua ezagutzea: izaera, funtzioak, funtzionamendua testu-mota ezberdinetan... Horiez gain, oso lagungarri zaio irakasleari ezagutzea objektu horrekin ikasleek ohi dituzten arazorik nagusienak. Artikulu honetan, euskarazko azalpenezko testuaren kohesioaz arituko gara, jakinik, ezaugarri testual horrek berebiziko garrantzia duela testua ulertzekoan eta ekoiztekoan.

Honako ataletan banatu da: testuinguratzea, kohesioaren definizioa eta funtzioak, testuen azterketarako metodologia (corpusa eta anafora-motak), kohesioa testu-mota ezberdinetan, kohesioa euskarazko azalpenezko testuetan, eta, didaktikari begira zenbait zertzelada.

1. Testuinguratzea Egunkarietako artikulu bat, azalpen pedagogiko bat, senideen arteko elkarriketa bat... horiek guztiak dira testu. Berbazko ekoizpen-unitatea da testu oro, bere baitan mezu antolatua duena eta hartzailearengan koherentziatzeko efektua eragin nahi duena.

Testuak, testu izateko, kokatua, burutua eta beregaina izan behar du. Kokatua esatean, testuinguru zehatzean –tokiari eta denborari dagokienez– ekoiztu dela esan nahi dugu; burutua esatean, komunikazioaren aldetik bukatua dagoela adierazten ari gara, eta, beregaina diogunean, berriz, ez dela beste inora jo behar haren esanahia jasotzeko.

Horrelako testuak ekoizteko hainbat gaitasun erakutsi behar ditu hiztunak, horietako bat testua kohesionatzeko gaitasuna da. Testuaren kohesioa ongi egitea ezinbestekoa da testu autonomoak (burutuak eta beregainak) ekoizteko.

Testuen ebaluazio tradizionalak (gramatika tradizionalan oinarritutakoak eta gramatika generatiboan oinarritutakoak) oso modu generikoan definitu ditu kohesio-estrategien gabeziaren ondorioz hiztunak egiten

dituen errakuntzak. Maiz askoan entzun ditugu honelako iritziak: “adierazpen anbigua”, “beharrezkoa ez den errepikapena”, “lexiko pobrea”... Horiexek dira, hain zuzen, kohesio-estrategien bidez, zehazki definitu, landu eta hobetuko diren alderdiak –ohiko ebaluazioetan modu lausoan definitzen zirenak eta orain, berriz, ezaugarri eta hizkuntza-unitate definitzariez ezagutuko ditugunak–.

Diskurtsoaren teorien markoan definitutako estrategia horrek, alegia, kohesiorako prozedurak, testuan aipatutako zenbait oker agerian jartzen lagunduko ditu. Hona hemen zertaz ari garen zehazteko adibide bat:

- (1) “(...)Hamazazpi urteko neska bat-batean haurdun dagoela konturatzen bada, zer egin behar du, umea izan eta horren ondorioz bere bizitza osoa hipotekatu, edo medikuarengana joan abortatzera? Nire ustez, **bigarren aukera** egoikiagoa da. Dena den, pertsona guztiak ez daukagu **pentsamendu** berdinak (...)” (U1).

Testu hori idatzi duenak “bigarren aukera” hitzen bitartez berreskuratu du aurretik aipatutako ideia (medikuarengana joan abortatzera). Horretarako, izen bat aurkitu du aurreko bi ideiak uztartuko dituen: umea izan eta abortatzea. Haren ustez, egoera horren aurrean bi aukera dira horiek eta, beraz, “aukera” izenaz berreskuratu du horietako bat hurrengo proposizioan. Irakurle ororentzat ulertzeko modukoa da hori; bi ideia horiek, elkarren segidan egoteaz gain, guztiok erlazionatzen baititugu semantikoki, eta, antzekoa gertatzen zaigu horretarako erabili dituen elementuekin ere (haurra izan eta abortatu, alegia, aukerak direla). Bigarren kasuan, aldiz, “pentsamendu” hitza ez da egokiena aurreko informazioa berreskuratzeko (ulertzea erabat oztopatzen ez duen arren), “pentsamendu” horren ordez “iritzi” edo “ez dugu berdin pentsatzen” hobeto leudeke.

2. Testu-kohesioaren definizioa eta funtzioak

Testu orok duen ezaugarria da kohesioa. Testualizazio-baliabide horrek testuaren barneko lotura semantikoak ezartzen ditu. Testu-kohesioaren barnean bi azpisail ikusten dira (Bronckart, 1996): izen-kohesioa eta aditz-kohesioa.

Izen-kohesiorako mekanismoek funtzio bikoitza dute: batetik, pertsonaia eta gai berriak sartzea ahalbideratzen dute eta, bestetik, berreskurapenak eta horiek txandakatzea ere ziurtatzen dute. Hizkuntz baliabideen artean berebiziko garrantzia dute diaforek (anaforak eta kataforak, zentzu zaballean, eta, berreskuratzeko beste zenbait mekanismo: errepikapenak, nominalizazioak, sinonimoak, erreferentziakidetasun-sareak, paralelismoak, etab.).

Aditz-kohesioak denboraren antolamenduaz gain, prozesuen hierarkiazko antolamendua ere (egoerak, gertaerak eta ekintzak) bideratu ohi ditu. Larrigan-ek (1998, 82. or.) dioen bezala: Gogoratu besterik ez dago *consecutio temporum* delakoaren kohesio-funtzioa. Baina, era berean, azpimarratu beharra dago denborazko morfema horiek, zenbaitetan, aditz-lexemekin, adberbioekin eta testu-antolatzaileekin ere elkarren mendeandaudela.

Badirudi, bestalde, aditz-kohesiorako mekanismoen banaketa, oso lotuta dagoela diskurtso-motekin: oinarritzko denborak, narraziozko eta fikziozko denborak, baldintza-eraren balio “pro aktiboak”, indefinituaren eta inperfektuaren arteko jokoa –erliebegintza–, etab. (Bronckart, 1996, Larringan, 1998a).

Artikulu honetan izen-kohesioaz arduratuko gara, soilik. Dakigunez, konexioaren eta kohesioaren mekanismoak modu ezberdinean gauzatzen dira testu-genero ezberdinetan (narrazioan, argudioan, elkarrizketan...). Horregatik, testu-genero bakoitzak bere funtzionamendu propioa izango du. Funtzionatze-modu hori karakterizatze hiza hizkuntza-unitateak aztertuko dira (izen-kohesioaren funtzionamendua jakiteko anafora-motak). Hemen zehaztuko ditugun ezaugarriak euskarazko azalpenezko testuarenak dira, nahiz eta marko teorikoa baliagarria izan gainerako testu-generoak ere aztertzeke.

Izen-kohesioa

Esan bezala, gai berriak testura eraman eta testuko gaiak mantendu, izen-kohesioaren bidez egiten da eta, gainera, gaien progresioa ere ziurtatu. Horrela, izen-kohesioak zehazten du bi edo argumentu gehiagoren artean dagoen erreferentziakidetasuna. Erlazio horiek serietan antolatutako izenorde edo izen sintagmen bidez egiten dira –edo kate anaforikoen bidez–.

Izen-kohesioan parte hartzen duen hizkuntz unitate bakoitza perpaus batean kokatua dago eta funtzio kohesiozkoa ez ezik, perpaus-mailako funtzio sintaktikoa ere hartzen du (subjektuarena, atributuarena, osagarriarena, etab.).

Izen-kohesioaren funtzioak

Izen-kohesioak bi funtzio ditu: sarrera-funtzioa eta berreskuratze-funtzioa.

- *Sarrera-funtzioa*.– Testuan esanahi berria duen elementua sartzen du; elementu berri hori kate anaforiko baten lehendabiziko elementua izango da.
- *Berreskuratze-funtzioa*.– Testuan aurretik sartutako nozio bat (aurrekaria) berreskuratzen da.

Izen-kohesioaren mekanismora hurbiltzeko hiru adibide emango ditugu:

- (2) “Beñatek hamahiruren bat urte zeukan Guntza herriko Kexuri izeneko base-rrira eraman zutenean. Mutiko zimel eta luzanga zen, kalpar beltz nahasizko zapak kopeta eta belarri gainak estaltzen zizkion. Bere bi begi biziak irri zerioten ile tartetik. (...)” (P. Zabaleta, 1994).

Adibide horretan kate anaforiko bakarra azaltzen da, nobelaren protagonistari dagokiona. Kate horren sortze-unitatea testuaren hasieran sartu da eta forma nominal eta pronominalak osatzen dute seriea (Beñat, mutiko, bere). Horiek guztiak aurrekariaren berreskurapena ziurtatzen dute.

Kate anaforiko bakarrekoko testuak (testu-atalak) dira errazena idazteko eta baita ulertzeko ere. Erreferentziakidetasun-mota, bestalde, ez da bat

bera kate guztietan; emandako adibidean horietako mota bat baino ez da ageri, eta horixe da, seguruenik, erreferentziatzko edukien artean identitate-mailarik handiena duen kasua. Bestelakoak dira, izan ere, ondoko adibideetan erreferentziatzko edukien artean gertatzen den identitate-mailak.

- (3) “[...] Ez da lan erraza prozesu osoan zehar elkarreraginezko giroa mantentzea. Baina frogatuak daude ahozko komunikazioan dituen ondorioak, bat-batean lortzen ez diren arren. Honako honetan nabari da jokabide horren onura: 1) Partaidetza handiagoa (...); 2) Elkarrizketan ekimen handiagoa (...); 3) Esanahiaren negoziazio gehiago (...); 4) Motibazio indartsuagoa. Ondorio hauek, ikerketa askok adierazten duen gisan [...]” (Hizpide, 36, 65. or).

Adibide horretan “nominalizazioa” edo “anafora kontzeptuala” dugu. Estilo zuzenean emandako enuntziatu baten bersailkatzea ahalbideratzen du anafora horrek. Horrela, “Ondorio hauek” izen sintagmaren bidez, testuan aurretik esandakoa kontzeptualizatu, berreskuratu eta determinatu egiten da.

- (4) “Paulek etxe bat erosi du. Teilatua eta hormak ongi daude baina leihoak eta kontraleihoak berriztu egin behar dira. Lehengo jabeak arotz on baten izena eman dio.” (Reichler-Beguelin, 1988a, 19. or.)¹

Beste adibide horretan, ostera, anafarak ez du berreskuratzen testuan aurretik esplizituki aipatutako informaziorik: hizkuntzazko edukien bitartez eman daitezkeen eduki inferentziazko baliatuz eta aurrezagupen orokorreari esker irakurleak testuaren zenbait informazio erlazionatzen ditu. Kasu honetan, nozio osoa (*etxea*) bere atalekin (*teilatua*, *leihoak*, *kontraleihoak*) lotzen dugu, eta, halaber, *etxe bat erostea* bere *aurreko jabearekin* eta leihoak *konpontzea arotzarekin*. Anafora-mota hori asoziazio bidezko anafora dugu.

Hiru adibide horiek ikusi ondoren, konklusio modura esan daiteke erreferentziakidetasun-maila eta mota kohesiozko ezberdinen arabera izan daitezkeela.

Kohesio-operazioa egiteko *anafora* deritzon hizkuntza-unitatea erabiltzen da nagusiki.

3. Izen-kohesioa eta anafora

Emandako adibideetan ikusi bezala, izen-kohesiorako unitaterik garrantzizkoenak anafarak dira. Horregatik, autore batzuek *kohesio anaforikoa* deitzen diote (De Weck-ek, 1991, besteak beste). Esan bezala, unitate horiei eta, bereziki, predikatuekin loturik dauden multzo nominalak gobernatzen dituztenei dagokie testuko informazioak antolatzea. Zentzu horretan, gestio hori prozesu korapilatsu agertzen zaigu. Bertan, eragile askoren menpe egoten dira anafarak: kotestuarekiko (kotestu lokala eta globala), eta, halaber, kontestuarekiko.

Testuaren ekoizpenari dagokionez, testu baten linearizazioan zehar, igorle/ekoizlearen ardura da, beraz, datu berrien eta jakinen arteko oreka gordetzea eta, halaber, datuen arteko artikulazioak ziurtatzea.

Zentzu horretan, bada, gaien antolaketak hainbat galdera sortarazi behar dizkio testuaren igorle/ekoizleari: *nola sartu lehenengoz gaia? Nola*

berreskuratu gai bera, ondoren beste gai bat sartzeko? Nola pasatu gai batetik bestera edo nola sartu eta berreskuratu paraleloki testuan bertan azaltzen diren hainbat gai?

Lehendabiziko galdera erreferentearen² sarrerari dagokio, eta besteak kate anaforikoen osarari. Operazio horiek faktore zenbaiten menpe gertatzen dira, besteak beste: menpekotasun kontestualak –testuaren ainguraketari dagozkionak³–, barne mendetasun globala –makro-egitura semantikoari dagozkionak eta planifikazioari dagozkionak– eta beste zenbait faktoreren menpe, aurrekoak baino lokalagoak eta multzokatua-
goak, beste testualizazio-eragiketekin zerikusia dutenak gehienak (besteak beste, konexioarekin eta kontuan hartze enuntziatiborako mekanismoekin) (De Weck, 1991, 109. or).

Aipatu erreferentean sarrera egiteko, ekoizleak hainbat hizkuntz tresna ditu eskura. Eta horien artean egiten duen aukera, printzipioz behintzat, erreferentea eta ekoizpen-egoeraren artean berak ezarritako erlazioaren arabera izango da (ainguraketa diskurtsiboaren maila).

Testuaren eraikuntzaren hurrengo urratsean, konjuntzio- edo disjuntzio-mailaren arabera, unitate ezberdinak aukeratu daitezke, *nominalak* edo *pronominalak*, eta, determinatzaileei dagokienez, *deiktikoak* edo *ez deiktikoak*. Erreferentea sartzeko modua ere aldakorra izan daiteke, zein eremu semantikotan txertatuko den; bertan eman baitaiteke auresuposizio-maila altuagoa edo baxuagoa, eta, orduan, forma *zehaztuak* edo *zehaztugabeak* aukeratu daitezke. Maila horretan hartutako erabakien arabera, orduan, kate anaforiko baten osararak bere gainetik dituen kate-mailen izaeraren eragina izango du.

Testu bateko kate anaforikoek honako funtzioak dituzte aldi berean: *elementu tematikoak mantentzea*, horiek *berreskuratzea* eta *txandakatzea*. Lehendabiziko biek argumentuen erreleboekin dute zerikusia eta azkenak, berriz, bilakaera tematikoarekin.


Gaia mantentzearena esatean ulertzen dugu, unitate anaforikoen hurrenkera gertatzen denean (bat, gutxienez, sarrera baten ondoren) baina kate horrek beste kate bat sortzen ez duenean. Gaiaren berreskurapena dela esango dugu, kate anaforiko bat eteten denean –beste elementu tematiko bati sarrera emateko eta hori sartu ondoren– hasierako kate anaforikoak aurrera segitzea. Horretarako, kate-maila bakoitzean aukeratuko diren unitateak, berauek osatzen duten prozesuaren izaeraren arabera izango dira.

Temaren bilakaeraren esku gelditzen da kate anaforikoen banatze-modua testuan. Beraz, elementu tematikoen txandaketa da horren ardura.

Ikuspuntu teorikotik begiratuta, bi modukoak izan daitezke: hurrenez-hurreneko kateak eta kate paraleloak. Hurrenez-hurreneko kateetan, kate bat hausten da beste kate baten garapena ahalbideratzeko; beraz, gaiaren mantenua eta berreskurapena gertatzen dira. Kate paraleloetan, ordea, elementu tematiko batzuk (bi, gutxienez) aldi berean aipatzen dira testuan, batetik besterako etengabeko pasabideak emanez. Honelako

kasuetan, gaia mantentzeari beste ardurarik bat gainezartzen zaio: tema ezberdinen elementuak bereizi beharra. Hemen aurkeztzen dugun adibi-dea “Papergintza” (LHE) testuaren lehendabiziko paragrafoari dagokio:

.1: *Kate anaforikoak “Papergintza” testuaren lehendabiziko paragrafoa.*



Testu horretako lehendabiziko paragrafoan testuaren lehendabiziko kate anaforikoa gertatzen da. Testu horren hasieran papera nola dagoen eratu-ta zehazten da. Bigarren perpausean, definizioan aurkeztutako elementuak –papera osatzeko behar direnak– (*zelulosa zuntzak, ura eta oihala*) berreskuratzen dira, horien artean gurutzamenduak gertatzen direla testuan. Lehendabiziko berreskurapenak *determinazioaren* bidez egiten dira; definizioan aurkeztutako elementuak generikoak dira, eta, ondoren ditugu: (1)zuntzak (-ak anaforikoa), (2)ura (-a anaforikoa) eta (3)oihalean zehar (-a anaforikoa). Hirugarren aldi batean, eta nozio berberak berreskuratu nahi direnean tematizatzeke, *testu barneko erreferentzia deiktikoa* erabiltzen da [(5)oihal horren, (6)zuntz gurutzatu horiek]; eta beste batzuetan *errepikapena*: (4)zelulosako zuntzak...zuntzak; (7)oihalean...oihaletik; (8)Papera...papera. .1 taulan irudikatu ditugu grafikoki kateen artean dauden gurutzamenduak:

Esan bezala, lau kate daude testu-sarrera labur horretan. Lehendabizikoak, ireki eta itxi egiten du (Papera...papera). Bigarrenak, luzeena, testu-atal osoa zeharkatzen duena, papera egiteko lehengaiaren nozioa dugu (zelulosa zuntzak). Hirugarrenak eta laugarrenak zirkunstantziak adierazten dituzte (gaiak, tresnak edo materialak); horiek bigarrena baino laburragoak dira. Laugarren kateak (oihalarenak), alabaina, testu atal horren zati handi bat zeharkatzen du.

Horrelakoetan ez dago ondoz ondoko berreskurapenik –izenorde (“horiek”, edo antzekoa) batez berreskura daitekeena–; kasu guztietan, nozio bat bideratzen duen kate baten barnean beste katea sartzen da eta, horregatik, ezinbestekoa da izen sintagma bidez berreskuratzea aipatutako nozioa. Hori dela eta, zenbait jarduera egin behar ditu aldi berean idazleak: gaia sartu, berreskuratu, beste gai bat sartu eta paraleloki, bata zein bestea edo hirugarren bat berreskuratu, eta hori guztia, kate bat besteetatik ongi bereiziz.

**4. Izen-kohesioa
analizatzeko
erabilitako
metodologia**

Gure *corpusa* osatzeko 60 testu aukeratu dira euskarazko entziklopedietatik (1992tik 1998ra argitaratutakoetatik) (Sainz, 2001, 182. or.). Testu horietan, guztietan –hori baita aukeratzeko jarri dugun ezinbesteko baldintza– *prozesu bat azaltzen* da (produktu baten fabrikazio-prozesua

4.1. *Analizatu den corpusa*

–gazta, beiratea, portzelana, txondorra, etab.–; fenomeno baten osatze-prozesua –hodei-fronteak, geyserra, zeta, higadura, etab.–; fabrikazio-metodoen azalpena –estrusio makina, fundizioa, eskuzko eraiketa, gurpil hidraulikoa, etab.–).

Produktu baten fabrikazio-prozesua, fenomeno baten osatze-prozesua edo *fabrikazio-metodoa* azaltzen duten testuak, oro har, entziklopedietan bildu ohi diren testuak ditugu. Prozesu horiek, kasu batzuetan, testu oso batekoak izaten dira. Beste batzuetan, deskribapenaren testu-sekuentziak ez du testu osoa hartzen; atal bat baizik, sekuentzia bat, Adam-en hitzetan (1990, 1992).

4.2. *Izen-kohesioa analizatzeko erabilitako unitateak: anafora-motak*

Esan bezala, anafora da izen-kohesiorako mekanismoaren aztarnarik behinena. Hori dela eta, testu-kohesioa analizatzeko unitate hori erabili dugu. Hona hemen hartutako erabakiak:

- 1 Testualizazioarako mekanismoaren kohesio-operazioaren barnean kokatzen da anafora, eta, ondorioz, zerikusi handia du bai *ainguraketa diskurtsiboarekin* (erreferentearen berreskurapena eta inplikazioa vs autonomia maila), eta bai, *planifikazioarekin* (antolaketa-mota edo maila lokalago batean, testu-fase mota) (Bronckart eta kol, 1985; Bronckart, 1996).
- 2 Ondorioz, *perpausaren maila gaindituz* analizatuko da anafora.
- 3 Anaforaren gestioa idazlearen esku gelditzen da: ekoizleari hainbat tresna eskaintzen dio hizkuntzak, eta horien artean egiten duen aukera, printzipioz behintzat, erreferentea eta ekoizpen-egoeraren artean berak ezarritako erlazioen arabera izango da. Hori, hizkuntzaren garapenaren ikuspuntutik hartuta, *prozesu konplexua* den heinean aztertuko da.
- 4 Anaforari ematen diogun *hedapenari* dagokionez, honako bi printzipioei erantzuten dietenak analizatuko dira: erreferentziakidetasuna gordetzen duten anaforak eta printzipio horretatik kanpo daudenak (De Weck 1991; Rosat 1995, besteak beste).
- 5 Aztertuko diren anaforen aztarna nagusiak honakoak ditugu: a) sistema pronominalen barnean kontrajartzeak eta ezberdintasun semantikoak eta formalak, eta b) ezberdintasunak lexema nominaletan.
- 6 Anaforen sailkapena bi kategoria nagusitan egingo dugu: anafora nominalak eta pronominalak. Bi kategoria horiez gain, honako markatzaileak ere aztertuko dira: beste anafora batzuk (lekuzko adberbiak, batik bat), perpausa metadiskurtsiboak eta paratestuaren aipamenak.
- 7 Euskara hizkuntzaren izen-kohesioari buruzko deskribapen gutxi dago, beraz, aipu gutxi egingo da euskararen funtzionamenduz

Dakigunez, izen-kohesioaren funtzioak bi dira: gai edo pertsonaia berriak sartzea eta horien berreskurapenak eta erlazioak ziurtatzea testuaren hurrenkeran. Mekanismo horiek gauzatzen dituzten unitateak ana-

forak ditugu; horiek *izen sintagmak* eta *izenordainak* dira nagusiki. Unitate horiez gain, beste unitate batzuk ere aukeratu ditugu gure analisisirako: *perpaua metadiskurtsiboak*, *beste anafora batzuk* (leku adberbioak, batik bat), *eta paratestuari erreferentzia egiteko beste zenbait unitate*.

Kategorizaziorako, bi irizpide izan dira kontuan: diskurtsoaren psikologian anaforen funtzionamendua batetik (Bronckart & lank., 1985; Bronckart, 1996) (Schnewly & Bronckart, 1986), eta bestetik, anaforen funtzionamendua azalpen-testuetan (de Weck, 1991; de Weck & Schnewly 1994; Rosat, 1995).

Hona hemen aukeratu diren kategoria guztiak: *anafora nominalak* (errepikapena, determinazioa, testu barneko erreferentzia deiktikoa, ordezkapen lexikala, anafora kontzeptuala, asoziazio bidezko anafora), *anafora pronominalak* (izenordain erakuslea, izenordain zehaztugabea), *beste zenbait anafora*, *perpaua metadiskurtsiboak* eta *paratestuari erreferentzia*,

5. Anafora-dentsitatea eta anafora-motak euskarazko azalpenezko testuetan

Anafora nominalak dira nagusi testu-mota horretan; gainerako anaforak proportzio txikian agertzen dira. Emaiza horiek bat datoz Diskurtso Teorikoan aurkitutako datuekin (De Weck-ek aipatua, 1991). Bestalde, 8/9 hitzeko anafora I aurkitu dugu honako testuetan. Beraz, esango dugu kohesioak garrantzia handia duela testu-mota horretan.

Hona hemen banan-banan anafora-motak:

5.1. Anafora nominalak

Aurkitu diren anafora guztien %84,75 batzen dute anafora nominalak. 10 hitzetatik bat anafora nominala da honelako testuetan.

Kategoria honetan hainbat motatako izen sintagmak aurkituko ditugu. Hona hemen nolakoak izan daitezkeen berreskurapena edo gaia mantentzea ziurtatzen dituzten unitateak beren aurrekariekin alderatuta:

bere aurrekariaren antzekoak izan daitezke (magma harriak, magma harriak) –errepikapena–:

- (5) “Jatorri eta eratze-prozesuaren arabera hiru harri-mota bereizten dira: magma-harriak edo eruptiboak, sedimentarioak eta metamorfikoak. Magma-harriak batez ere...” (Harriak, G. E. 1992).

determinazio-markari dagokionez, ezberdinak:

- (6) “Zilindroaren barnean dagoen metala, enbolo batez bultzatzen da presio handiz. Aipatu era horretan enboloaren presiopean...” (Extrusioa, PE, 1996).

lexiko-mailari dagokionez, ezberdinak:

- (7) “Likore. Edari bizia, hainbat gai destilizatuz...” (Likore, LHE, 1994).

edo aipatu bi alderdiei dagokienez ezberdinak:

- (8) “...eta ingurukoa baino presio atmosferiko txikiagoa daukan eskualdea da. Gune hau inguruko aire masa...” (Haize, EHE, 1995).

Anafora nominalen artean sailkapen hau aukeratu dugu: *errepikapena* (magma harriak←magma harriak), *determinazioa* (enbolo batez ←enbo-

loaren), *testu barneko erreferentzia deiktikoa* (partikulez osatua ←partikula horiek), *ordezkapen lexikala* (labore←bihia), *anafora kontzeptuala* (...mamiaren umotzea oso konplexua da (...))← prozesu horretan), *asoziazio bidezko anafora* (...lehenik berotu egiten da pieza(...)). ←Metala gori dagoenean).

Hona hemen banan-banan azalduta.

Termino beraren errepikapena

Testuan zehar askotan, gai aldaketarik ez dagoen kasuetan, batik bat, gai nagusia aurrekariaren lexema berberarekin berreskuratzen da. Berreskurapen hori bi modutara egin daiteke: bata hertsia deritzoguna –aurrekariaren lexema bera duena eta haren numero eta kasu beretan dagoena–.

(9) “(...) 1.500°C inguruan berotuta isurkari antzeko **orea** lortzen da, baina hoztutakoan halako likatasuna hartzen du, eta edozein gauzatarako erabiltzeko malgutasun-zurruntasun egokia. **Orea** urtu ondoren arragotu egiten da (...)” (Beiragintza, LHE, 7. testua)

Eta bestea, larria deritzoguna –aurrekariaren lexema bera izanik, numero edo/eta kasu desberdinetan dagoena–.

(10) “Zuntzak askatzeko **orea** eho. 4) **Oreari** almidoiak, erretxinak, buztinak eta kolore emaileak gehitu. (...)” (Papergintza, LHE, 8. testua).

Anafora-mota hori determinazioarekin batera erabilienak ditugu testu-mota horretan. Izena eta determinatzailearen bitartez egiten da termino beraren errepikapena gehienetan. Determinatzailea edozein kasutan egon daiteke (nominatiboan, ergatiboan, akusatiboan,...).

Beste zenbaitetan lexema errepikatzen da, baina orain beste hitz batekin hitz konposatua osatzen duela (*esne*→*esne-mota*, *zementu*→*zementu-motaren...*, *hari*→*hari-muturrak*, kasu).

Termino bakarra izan ezik, izen sintagma osoa ere errepikatzen da zenbait kasutan. Esaterako, *kautxu naturala*, *kautxu sintetikoa*, *kautxu landugabea*; *zur zuntzak*; *harri metamorfikoak*, *harri sedimentarioak*, *harri magmatikoak*, etab. Horiek guztiak, gehienetan, gaiaren motak zerrendatzen direnean gertatzen dira.

Aztergai ditugun testuak gai iraunkorreko testuak direla kontuan izanik, gehien errepikatzen den terminoa gaiaren izena da (*gazta*, *kautxua*, *beira*, *haizea*, *zementua*, *papera*, etab.). Horiez gain, badira, gai iraunkorreko kate anaforikoarekin gurutzatzen diren beste kate batzuk ere, gehienetan, osagaiei edo prozedurari dagozkienak, eta, horien terminoak ere maiz errepikatzen dira (Adib.: *esnea* eta *matoia* “Gazta” testuan; *enboloa*, *zilindroa* eta *metala* “Extrusioa” testuan; *orea* “Papera” testuan; *kapulua* “Zetarra” testuan, etab.).

Errepikapenen kokapenari erreparatuz gero, ikusi da zenbait kasutan gaiaren tematizazioa tituluaren errepikapenez egiten dela testuaren hasieran. *Papiro*→*Papiro orriak egiteko...* (3. testua); *Kutsadura organiko*→*Kutsadura arruntena da...* (28. testua); *DNAren sekuentziazioa*→*DNA zatiak klonatu...* (32. testua); *Glaziarra*→*Izotz masa handia*

da glaziarra... (55. testua); Papera→*Papera fabrikatzeko teknika... (42. testua); Distilazioa*→*Distilazioa, nahasketa likido... (58. testua), etab.*

Determinazioa

Esan bezala, determinazioa dugu testu-mota honetan gehien ikusi den kohesio-mekanismoa errepikapenarekin batera.

Determinazio modura ulertu dira hemen zenbait kasu ezberdin: a) artikulugabetik mugatura (mugatutik mugagabera); b) generikotik mugatura; c) aurrekaria den izen sintagmaren izena elipsian egonik, izenlaguna eta determinatzaile batekin berreskuratzen denean.

a) Testuan zehar aurrekariaren lexema bera errepikatzen dugu, baina mugabetik mugatura pasatuz.

(11) “(...) gertaera horiek ikusgarriak izaten dira, batez ere, lurpeko tximiniaren adarrek **haitzuloren bat** barne hartzen dutenean. **Haitzuloan** ur-lurrina metatzen da (...)” (Geyserrak, PE, 20. testua).

Mugatutik mugagabera pasatuz. Kasu honetan aurrekariaren lexema bera erabiliz berreskuratzen da gaia, baina mugatu izatetik determinatzaile zehaztugabera pasatzen da. “(adib.: melokotoiak...melokotoi batzuk).

b) Generikotik mugatura: lexema bera errepikatzen da. Kasu honetan kontestuz baliatu behar da generikoa edo singularra den jakiteko.

(12) “**Portzelana** txinatarrek asmatu zuten (...). **Portzelana-mota** nagusi bi daude: **Portzelana gogorrak** hiru osagai ditu (...)” (Portzelana, EHE, 41. testua).

c) Izena elipsian dagoela, izenlaguna eta determinatzailearen bitartez egiten den berreskurapena.

(13) **Papiro zaharrenak** (...). Grezian eta Erromako inperioan ere erabili ziren. **Hasierakoak** letra hieratikoz idatziak dira, eta **geroagokoak** hieroglifikoki idazkeraz (...)” (Papiro, LHE, 3. testua).

Testu barneko erreferentzia deiktikoa

Testuan zehar aurrekariaren lexema berarekin berreskuratzen da gaia baina determinazioaren modua da aldatzen dena: -a/-ak anaforiko izatetik izenondo erakusle bat izatera pasatzen da. Aurreko bi kategorien azpikategoria dela esan daiteke, bien nahastea baita. (Adib.: errenina entzima...entzima horrek; partikulez osatuak dira...partikula horiek; presioaren menpean...presio hori; etab.). Mekanismo hori oso erraza da identifikatzen, izenondo erakuslea baitarama beti berarekin eta, gainera, testuaren aurrekaritik gertu agertzen delako. Hauetariko gehienak elementu baten lehen anaforizazio dira eta ondoz ondoko berreskurapenak ditugu.

Berreskuratzeko mota hau ez da testu guztietan gertatzen, eta gertatzen den testuetan kasu bat edo beste ikusi da bakarrik.

Ordezkapen lexikala

Ordezkapen lexikalak analizatzeko lexema nominalak analizatu behar dira. Ikuspuntu formaletik begiratuta era desberdinez erabiltzen da mekanismo hau: aurrekaria (izena + determinatzailea) konposaketa ber-

dina duen *sintagma nominalaz* berreskuratzen da, baina bien arteko erlazio semantikoa aldatu egiten da. Hemen hiru erlazio semantiko berezi ditugu: hiponimia, sinonimia eta testu barruko sinonimia.

- a) *Hiponimia*.– erlazio honek partikularretik jeneralera pasatzea ahalbidertzen du; sistema lexikalean desplazamendu “bertikal” baten bidez egiten da, izen generikoa erabiliz kasu gehienetan. Adib.: Gazta←elikagai; kautxu←substantzia; kautxu sintetiko←produktu sintetiko; kautxua←material hori; zetarra←intsektu, etab.
- b) *Sinonimia*.– erlazio honek baliokidetasunetik hurbil dagoen erlazioa sortzen du bi elementuen artean. Ikuspuntu estrukturaletik desplazamendu “horizontala” ematen da. Adib.: labore←bihia; larba←harra; tximeleta←krisalida; modeloa←eredua, etab.
- c) *Testu barruko sinonimia*.– Hirugarren erlazio-mota honek kontestu jakin batean bakarrik du balioa. Erreferentea eta anaforaren arteko baliokidetasuna kontestuak berak ematen die. Testu-mota honetan berreskurapenak oso bereziak dira. Garapen prozesuaren une desberdinetan garatuz doan materiak hartzen duen *itxuran*, *forman* edo *izarran* aurkituko dugu berezitasun hori. Prozesuaren garapen-une ezberdinetan lehengai aldatuz doa eta gai berria berreskuratzeko izatera berriari dagokion izena behar da. Adib.: zura ehotuta←ore likatsua; orria eratu←paper-tira; sagarra garbitu, birrindu edo jo←pats hori; etab.

Anafora horrek, anafora guztien % 4,7 hartzen du. Beraz, ez da oso ugaria testu mota honetan.

Anafora kontzeptuala

Anafora kontzeptualak –aurretik azaldutako anafora motak ez bezala– ez du kotestuan identifikagarria den segmenturik. Horrekin esan nahi da egoera komunikatibotik, kotestutik edo irakurleak nor bere ezagutzetatik eginiko inferentziak egin behar direla lotura anaforikoa egiteko.

Kotestuaren ekarpenak eta norabide argumentatiboa aldi berean kontzeptualizatzea ahalbidertzen du anafora honek (Descombes et Jespersen, 1992, 81. or). Birformulazio edo sintesi funtzioa betetzen duenez, diskurtsoaren kohesioa indartu egiten du.

Esan bezala, testuan aurretik aipatutakoa birformulatzea da anafora honen funtzio nagusia. Birformulazio horiek ezberdinak izan daitezke birformulatzen duten testu-zatiaren arabera.

- (14) “... Harri txikiagoak erabiltzen direnean, bata bestearen gainean eta poliki-poliki aurrera egiten dutela jarri behar dira, (...). Egitura honek, ordea,...” (Ganga, GE, 56. testua).

Hemen, esaterako, “egitura honek” aurreko zati osoa berreskuratzen du (harri txikiak, bata bestearen gainean jarrita eta poliki-poliki aurrera egiten dutela jarrita).

Baina ideia, termino edo kontzeptu bakar bat ere birformula dezake anafora-mota honek.

Birformulazioak nominalizazio batez egiten dira gehienetan eta horregatik, autore batzuek nominalizazio izena (hiponimia bidezko nominalizazioak) ematen diote mekanismo honi (De Weck, 1991; Rosat, 1995).

Birformulazioaren ideia garatuz, testuan anafora honen bidezko birformulazioak izaera ezberdina izan dezake –testura bueltatzen duten informazio kantitate eta izaeraren arabera–: batzuetan, kontzeptualizazio hutsa da –ez da informaziorik gehitzen–. (26) adibidean *izena ematen* zaio (prozesu) eta *determinatu* egiten da (horretan):

(15) “...Mamiaren umotzea oso konplexua da, eta bakterioek eta lizunek egiten dute; prozesu horretan proteinen hidrolisia gertatzen da...” (Gazta, LET, 34. testua).

Beste batzuetan informazioa zabaldu egiten da. (16) adibidean, esaterako, *izena eman*, *determinatu* eta informazioa gehitu egiten da, *kalifikatu* egiten dira jarduera horiek: “bolkanikoak” direla esaten da. Kalifikatzeko modua, objektiboa izan daiteke –bolkanikoak kasuan bezala–, edo modalizatzailea (11) adibidean bezala:

(16) “...erreakzio konplexu hauek.....Jarduera bolkanikoekin zerikusia duten jarduera horiek...” (Geyserrak, PE, 20. testua).

(17) “...Onddoak xurgatzeko gatzak eta ura landarera pasatzen dira, eta onddoak landaretik berriz, karbono hidratoak eta gai nitrogenodunak xurgatzen ditu. Harreman onuragarria da bi organismoentzat (mutualismoa). Arrazoi horregatik, zuhaitz mota jakin...” (Elikagaien xurgatzea, LET, 29. testua).

Anafora biltzailea

Anafora biltzailea anafora kontzeptualaren azpi-sail bat dugu. Gehienetan katafora modura funtzionatzen du. Anafora honek nominalizazio bakar batean birformulatzen ditu zerrenda batean emandako kontzeptuak. Beraz, bere aurretiko edo atzetiko zerrenda-aleak *bildu* egiten ditu, *izena ematen* die eta *determinatu* egiten ditu.

(18) “Gero, **zenbait produktu** gehitzen zaizkio, hala nola, azido laktikoa eta txekor gazteen gatzagia...” (Gazta, GE, 49. testua).

Anafora kontzeptualekin bukatzeko, azken sail honetan ere batu ditugu aditz sintagma edo perpausa oso bat izen sintagma batez berreskuratzen diren kasuak. Kasu horiek besteetatik ezberdinak badira ere, sail honetan sartu ditugu, besteak bezalaxe, nominalizazio bidez gauzatzen baitira. Honelako kasuetan izenaren lexema aurreko aditz bateko erro berekoa da. Beraz aditza nominalizatua dela esango dugu.

(19) “Ogi orea, irina eta ura nahastuz osatzen da, eta nahastura horri...” (Ogia, LHE, 6. testua).

Anafora kontzeptualek anafora guztien % 11,34 osatzen dute analizatu ditugun testuetan. Horrek esan nahi du termino beraren errepikapena eta determinazioaren ondoren gehien ikusi den anafora-mota dela, anafora pronominalen aurretik. Beraz, sendoa da anafora honen presentzia azalpeneko testuetan.

Asoziazio bidezko anaforak

Asoziazio bidezko anaforetan, erreferentziakidetasuna duten anaforetan ez bezala, testuan sartutako entitatea berria da (Prince, 1981; Gundel eta

lankideak., 1993; Berrendoner, 1994; Kleiber eta lank., 1994). Kasu honetan anafora ez da aldeztatik aktualdutako interpretatzaile baten “errepikatze hutsezko” fenomeno; ez da ordezkapena (Reichler-Béguelin, 1988). Hona hemen adibide bat:

(20) “Mozketarako, lehenik berotu egiten da pieza sopletearenugar arruntaz. **Metala** gori dagoenean, oxigenoaren...” (Soplete oxiazetilenaren bidezko soldadura, PE, 24. testua).

(20) adibidean *Metala* izen sintagma ez dagokio aurretik esandako zer-baiti, aldiz, eduki azpi ulertu baten arabera interpretatua suertatzen baita, nahiz eta inferentzia bidez ondoriozta daitekeen. Horrela, testu honen irakurleak, jakin behar du *Sopletea* metala mozteko erabiltzen dela, eta beraz, testuan aurrez aipatu *pieza* metalezkoa dela.

Anafora hori, bada, nolabaiteko elkarkidetzan oinarritzen da, ezagutza komunetan edo: metonimiazkoak zein beste batzuk. Edo beste era batean esanda, kultura bereko talde batek komunetan dituen ezagutzetan.

Esan daiteke, beraz, anafora horrek honako bi baldintzak dituela: **1)** Testuari berari esker linguistikoki eraiki eta sortu den jakintza (ezagutza) da. eta **2)** Inferentzia bidezko edukiak beharrezkoak dira. Horretarako, beraz, ezagutza lexikalak, entziklopediazkoak eta aurrebaldintza kulturalak, gizarte bateko komuneko argudio-tokiak etab. behar dira.

Esandakoagatik, asoziazio bidezko anafora ezin da erakusle batez determinatu. Euskaraz eman dugun aurreko adibidean, esaterako, ezingo dugu *metal hori* esan.

Gure testuetan aztertutako asoziazio bidezko anaforek ezagutza espezifikoa izatea eskatzen dute. (21) Adibidea ulertzeko, jakin behar da materia –kasu honetan, polimeroa– molekularaz osatuta dagoela, eta, beraz, polimeroaren molekulei egiten diela erreferentzia –materiaren ezaugarri bati, alegia–. Gerta zitezkeen “bere molekulek” izenondo posesiboarekin lagunduta joatea; horrelako kasuak ere aipatzen ditu Kleiber-ek (1999, 342. or.).

(21) “...Kimikoki, isoprenoaren polimeroa da substantzia hau eta horrek esan nahi du, **molekulek** katea luzeak eratzen dituztela.... (Kautxua, GE, 51. testua).

Hemen gogoratzen ditugu Kleiber (1999) autoreak, zehaztasun handiz, anafora honen baitan ikusten dituen azpi-sailak edo erlazio izaerak: osotasun/atalak; *gorputzeko atalak* adierazteko; *jantziak*,...; *bizidunen ezaugarriak* (memoria, inteligentzia, ...); *bizigabeen ezaugarriak* (kotxeari buruz, esaterako, kolorea, erosotasuna,...); bizidun eta bizigabeen *denbora dimentsioak* (bizitzako uneak, denboraldiak, ...); *objektuen konposaketa*, *fabrikazioa*, *lehengaita* (esaterako, butaka/larrua; soinekoa/artilea;...) etab.

Esandako guztia kontuan izanik, ulerpenerako baldintza bereziak jartzen dizkio irakurleari asoziazio bidezko anaforak. Beste zenbait anafora-motetan ez bezala, honetan hainbat inferentzia egin behar du irakurleak testua ulertu nahi badu. Beraz, munduari buruz dituen ezagutzak martxan

jarri beharko ditu ondoko inferentziak egin ahal izateko, eta, azkenik, testuaren esanahia jasotzeko. Hona hemen Riegel-ek eta lankideek (1994) emandako adibidean (22) irakurleak egin behar dituen inferentziak: munduari buruz dituen ezagutzak erabiliz ondorengo asoziazioak egin ditzake *–pedala* bizikletariak gidatzen duen *bizikletarekin* eta *orpoa “lui”* izenordainarekin–.

(22) Il heurta un cycliste qui tournait sans prévenir. La pédale lui arracha le bass de son pantalon et lui lacéra la cheville (B. Vian-en pasartea, Riegel-ek (1994) aipatuta, 615. or.).

Anafora-mota honek, gainerako anaforen % 3,31 osatzen du.

*Erreferente
ebolutiboa duten
anaforak*

Testu batzuetan edo zenbait testuren sekuentziantan (Adam, 1990, 1992), elementu baten transformazioen bilakaera deskriba daiteke. Honelakoak ditugun sukalde-errezetak edo *bricolage*-ko muntaiak azaltzen dituzten testuen sekuentziak, besteak beste. Tankera honetako sekuentzietan, lehengai batetik abiatuz, hasierako materia beste izaera bat hartzera heltzen da, zenbait eraldaketa dela medio (Paperaren fabrikazioan, esaterako, hasierako “zuhaitz enborrak” “paper” bihurtzen dira testu bukaeran). Horrelako eraldaketa-prozesuari jarraitzen dioten objektuei erreferente ebolutiboak deitzen diegu (Charolles & Schnedecker, 1993).

Prozesu eraldatzaile horiek hainbat modutan eragin diezaiokete objektuari: forma aldatuz (“xafla” “hodi” bihurtu, esaterako), materia aldatuz (ura eta azukrea nahastuz gero urazukrea dugu, ez ura ezta azukrea ere), izaera aldatuz (ura izozgailuan sartuz gero, likidotik solidora igarotzen da, “ura” izatetik “izotza” izatera igarotzen da, alegia), etab.

Alderdi hori ulertzeko, ondoko lerrootan zehazten dugu testu-kohesiorako elementu honek duen interesa.

Materia bat, testuan zehar transformazioak direla medio, formaz, materiaz, edo izaeraz alda daiteke, bere hasierako identitate osoa edo hein batean, behinik behin, aldatua suertatzen dela. Honelako fenomenoak hizkuntzaz adierazteko zenbait faktore izan behar dira kontuan. Lehenik, fabrikazio prozesuan zehar, abiapuntuko materia berreskuratzeko sortzen diren arazoei dagokie (“zuhaitz enborra” kontzeptua berreskuratu ahal da “orea” edo “papera” izen sintagmekin?). Adibide batzuekin azalduko ditugu arazo horiek. Hona hemen Brown G. eta Yule G. autoreek (1983, 316. or.) ematen duten adibideetariko bat:

(23) Tuez un poulet actif et bien gras. Préparez-le pour le four. Coupez-le en quatre morceaux et faites-le rôtir avec du thym pendant une heure.

Adibide horretan hasierako oilaskoa “actif” eta “gras” ez da bukaerako oilasko zatien izaera berekoa.

Brown & Yule (1983) autoreek transformazioak edo propietateak akumulatzen dituzten materiak adierazteko eredu bat sortzearen beharra aipatzen dute. Horrela, aipatu autoreek “hurbilpen metagarriaz hitz egiten dute. Teoria horren arabera, aurrekariaren eta anafora-izenordainaren artean dauden predikatuez aberastutako izenordainaren bidez berresku-

ratzen da aurrekaria. Gauza bera aplika dakioke elipsiari; izenordainaren antzera, honek ere badu tarteko predikatuen esanahia akumulatzeko gaitasunik. Teoria horren arabera, predikatuek garrantzi handia hartzen dute anafora pronominalen interpretazioan. Ondorioz, horrelako testuetan anafora pronominalen anbiguitatea irtenbideratzeko erabiltzen dira predikatuak. Charolles (1993) autoreak, berriz, modu honetara erreferentzia kontuak lausotuta gelditzen direla ikusten du eta aurrera egiten du soluzio bila.

Beste batzuetan lehengaia eraldatu egiten da, beste izen bat hartzeraino. Adibidez: azukrea uretan disolbatzen bada, “urazukre” izena hartzen du materia berriak “disolbatze” operazioaren ondorioz. Beraz, dagoeneko ez da ez ura ezta azukrea ere.

Esandako guztiengatik, testuan kateatutako prozesuan ezingo genuke elipsi bidez (ura edo azukrea nozioak) aurreko aurrekariarekin berreskuratu, materiaren izaera aldatu egin baita, eta orain beste nozio bati dago-kio, ez lehengoari. Horregatik, ezin da kasu hauetan berreskuraketa anaforikoa egin, ez elipsi bidez, ezta erakusle bidez ere, Brown eta Yule (1983) autoreek proposatzen duten bezala.

5.2. Anafora pronominalak

Ordezkapen pronominala anaforaren kasu pribilegiatua da. Ikuspuntu tradizioaletik, esan izan da izen sintagma edo izen baten errepikapena ekiditen duela izenordainak. Baina izenordainaren rola ez da estilo kontuetara mugatzen. Izenordainek testuaren egituraketan ere parte hartzen dute (Riegel eta kol. 1994). Izenordaina, oro har, gai hurrenkeraren markatzaile modura ikusten da (Kleiber, 1994), bere bidez berreskuratzen baita gaiaren aztarna.

Kategoria honetan aurkituko ditugu pertsona izenordaina (3. perts.), erlatibozkoak, posesiboak, erakusleak eta elkarkariak.

Riegel-ek eta kolaboratzaileek (1994, 613. or.) bi errepresentazio-mota bereizten dituzte:

- *Errepresentazio osoa*.–Izenordainak osorik ordezkatzen du aurreko talde nominala. Erreferentziakidetasuna dago. Honelakoak ditugu: 3. perts. pertsona izenordainak, zenbait erakusle eta erlatibozkoak.
- *Errepresentazio partziala*.–Izenordainak multzo nominalaren zati bat ordezkatzen du. Posesiboak eta zenbait erakusle ditugu multzo honetan.

Esan bezala, anafora pronominalak anafora guztien %9,24 osatzen dute testu-mota honetan. Gogora dezagun Garciak (1999) ere antzeko datuak ikusi dituela testuliburuetakoa testuetan: %12,02.

Izenordain erakusleak

Izenordain erakusleak (*hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek*). Anafora honek badu zerikusia perpausean betetzen duen funtzioarekin. Testuan izenordainaren aurretik aipatutako sintagma da –numero eta kasu berean dagoena– izenordainaren aurrekaria. “Hori” edo antzeko erakusleak

nahasmenduak sortzen ditu euskarazko testuetan; horregatik, “egoera hau” “baldintza horiek” edo antzekoak erabiltzea aholkatzen da. Izenordain neutroak izen sintagma bakarra edo proposizio osoa ere berreskura dezake.

Anafora honek nahasmendu handia sortu ohi du, besteak beste, aurrekari posible bakarra izateaz gain, bere aurrekaritik oso hurbil egon behar baitu, anaforak ongi funtziona dezan. Horrez gainera, euskarazko gramatikak beste oztopo bat eransten dio: generoa ez markatzeagatik sortzen duena. Azken urteotan anafora honetaz hainbat gomendio (Zabala, 1996) eman izan dira; horietako bat, katafora modura funtzionatzen duenean “hau, honek,...” forma erabiltzea gomendatzen da eta anafora modura funtzionatzen duenean, berriz, “hori, horrek” formak hobestea. Alabaina, aztertutako testuetan ez da gomendio hori betetzen. Analizatu ditugun kasuetan bata zein bestea erabiltzen da, eta kasu batzuetan biak ere bai testu berean.

Izenordain zehaztugabea, bihurkariak eta elkarkariak

Norbait, zerbait izenordainak. Zernahi, edozer, edonor, ... Inor eta ezer. Nor izenordainaz osatutako esapideak: norbera, bakoitza, esaterako. Batzuk eta besteak, zenbatzaile zehaztugabeak ere hemen sartu ditugu izen sintagma berak bakarrik osatzen dutenean. Bateonbat,...; Batak beste-teri,... Zenbakiak (5,6,...); denak, bakoitzean... Ordinalak: bigarrena, hirugarrena,...

5.3. Beste zenbait anafora

Multzo honetan sailkatu ditugun unitate gehienak *leku aditzondoak* dira –anafora modura funtzionatzen dutenak–. Aditzondo erakusleak: *hemen, hor, han* eta horien indartuak: *hementxe, hortxe, hantxe*. Modu adberbio erakusleak ere hemen sailkatu dira: *honela, horrela, hala*. Anafora mota horrek guztien %4,58 osatzen du.

Esapide metadiskurtsiboak

Hemen aztertuko dira anafora edota katafora modura funtzionatzen duten esapide metadiskurtsibo guztiak. Esapide horiek kohesiogileak izateaz gain, prozesuaren errepresentazioa egiten laguntzen diote irakurleari –gero datozen operazioak laburtuz (katafora) edo aurretik esandakoak birgogoratuz– eta modu batera zein bestera, laburtuz. Anaforak ez izan arren, testu-kohesioan betetzen duten funtzioa garrantzitsua dela eta aukeratu ditugu gure analisirako. Esapide hauetan gainezarririk ematen dira testualizazioaren bi mekanismoak: konexioa eta kohesioa.

Aztertutako testuetan, oro har, errazak dira identifikatzeko, perpausa itxura izateaz gain, gehienetan bi puntutan (:) bukatzen direlako. Hona hemen adibidea:

(1) “Prozesuan, honako faseok burutzen dira: Labeko zulotik modu jarraian isurtzen den beira urtuaren zati txiki bat mozten da. –Putz egin beharreko beira lehenengo forma emateko molde metaliko baten goialdetik sartzten da.– Moldearen behealdetik putz egiten da, beirari moldearen forma emateko. –Lehenengo moldea ireki ondoren, beirazko pieza akabera-moldera sartzten da, eta berriro berotzen

da beira biguntzeko. –Putz egiten da berriz ere, pieza taxuz moldeaturik behin betiko forma emateko. –Akabera-moldea ireki eta pieza bukatua atera behar da”(Beira piezen prestakuntza, PE, 21. testua)

Paratestuaren erreferentzia

Aztertutako testu idatzietan zenbait aipamen egiten zaizkio paratestuan dauden irudi, grafika, eta abarri. Horiek guztiak dira hemen sailkatu ditugunak. Entziklopedia testuetan paratestuko elementuak asko eta garrantzitsuak izaten dira, oro har. Baina guk corpora aukeratzeko modua dela eta, paratestuko elementuak gure analisitik kanpo geratu dira. Horregatik, ezaugarri horrek garrantzi gutxi izan du gure lan honetan.

6. Anaforaren funtzionamendua hiru prototipo diskurtsiboetan: Diskurtso teorikoan (DT), Diskurtso Girotuan (DG) eta Narrazioan (N)

Diskurtsoaren psikologia teoriak (Bronckart eta lank., 1985) interesa izan du jakiteko nola funtzionatzen duten prototipo diskurtsiboetan hizkuntz unitateek (aditz denborak, antolatzaileak, etab.), eta, halaber, zenbateko maiztasunez agertzen diren anafora pronominalak eta nominalak.

Hona hemen ikerketa horien zenbait emaitzaren hurbilbidea. Anafora pronominalak Narrazioan (N) eta Diskurtso Girotuan (DG), Diskurtso Teorikoan (DT) baino gehiagotan agertzen dira. Honela interpreta daitezke emaitza horiek: DGan ainguraketa konjuntuak erraztu egiten du unitate deiktikoen erabilera (unitate anaforikoen ordezkio). Izenordainak nahikoa dira kate laburretako aurrekaria berreskuratzeko. DTan, ordea, abstrakzioa eta gaien aniztasuna dira nagusi, eta horiek berreskuratzeko forma esplizituak eta konplexuak behar dira (anafora nominalak). Narrazio gehienetan, bertan agertzen diren elkarriketa zatiak direla eta, anafora pronominalak dira nagusi (de Weck-ek aipatua, 1991).

7. Laburbilduz

Azalpenezko testuaren izen-kohesioaren analisitik zenbait ondorio mota atera dira (Sainz, 2001):

Anaforen dentsitateari dagokionez: azalpenezko 60 testu aztertu ondoren, zera ikusi da, 8/9 hitzeko anafora bat dagoela. Beraz, esango dugu kohesioak garrantzia handia duela testu mota honetan. De Weck eta Schneuwly-k (1994) esan bezala, garrantzi horren arrazoia testu mota honek duen erreferentzia kronologikoan egon daiteke, bertan, ekintzen kateamendua egileen (actants) bidez ziurtatzen baita.

Ikusitako anafora motetara etorrira, kategorikoki esan daiteke anafora nominalak direla nagusi euskarazko azalpenezko testuetan. Anafora nominalak anafora guztien % 84,75 dira eta pronominalak % 8,17. Anafora nominalak honako behearanzko ordenean ikusi ditugu: terminoaren errepikapena > determinazioa > anafora kontzeptuala > testu barneko erreferentzia deiktikoa > ordezkapen lexikala > asoziazibidezko anafora.

Esan bezala, antzekoak ditugu, halaber, euskaraz ezagutzen ditugun beste datuak (Garcia, 1999). Autore honek honako emaitzak aurkitu ditu natur zientzietako testuliburu-tako testuetan: anafora nominalak % 81,83 eta pronominalak % 12,02.

- *Anafora motei dagokienez*, garbi ikusi da anafora nominalak direla nagusi azalpenezko testuan (Sainz, 2001). *Gaiaren izaera*, eta horrek eskatzen duen *abstrakzio maila* izan daitezke fenomeno horren arrazoia; hirugarren arrazoia, gaiak testuan zehar duen *hedapena* izan daitezke⁴. Baldintza horiek betetzeko zehaztasuna behar da, eta jakina da izena –izen sintagma– dela baldintza hori bete dezakeen unitaterik egokiena. Antzeko emaitzak ikusi dira Garciak (1999) aztertutako ikasleentzako testutituluuetako testuetan.
- *Anafora nominalak* dira nagusi euskarazko azalpenezko testuetan: guztien %87,75. (Sainz, 2001). Horren antzeko balioak ikusi dira euskarazko testu liburuuetako azalpenazko testuetan (Garcia, 1999): % 81, 83.
- Anafora nominalen artean, errepikapena eta determinazioa dira maizen ikusi diren anaforak.
- Errepikapenak *oinarrizko jarraipen tematikoa ziurtatzen* du testu osoan zehar eta fabrikazio edo osatze prozesu testu fasean *atal ezberdinak artikulatzen ditu*. Bi funtzio horiez gain *gai orokorra eta berriaren sarrera* ere ziurtatzen du. Anafora-bilbe nagusian maiz ikusten da errepikapena eta testuaren *atal handiak zeharkatzen ditu*. Tartean bigarren mailako beste anafora-bilbeak zeharka dezakete bilbe nagusia. Anafora pronominalak ezin du bete errepikapenak betetzen duen funtzioa.
- *Determinazioa* gehienetan *bilbearen bigarren elementua* izaten da. Askotan bilbearen lehendabiziko elementua “generikoa” da. Ohikoa da testu mota honetan erlatiboazko perpausa bidezko determinazioa.
- *Anafora kontzeptuala*. Anafora kontzeptualak funtzio garrantzitsua betetzen du testu mota honetan: *esandakoa bildu, laburtu, izena eman* eta *determinatu* egiten du gehienetan. Beraz, aurretik esandakoaren *ixte funtzioa* betetzen du, eta aldi berean, *gai berria tematizatzen* du. Oso elementu baliagarria da ulermena errazteko eta kontzeptualizazioa gauzatzeko. *Testu edo sekuentzia-mailan* aritzen da. Perpausaren hasieran lekutzen da anafora hau gehienetan.
- *Ordezkapen lexikalak*. Anafora-bilbeen barnean hurrenkera tematikoa ziurtatzen dute. Maila lokalean funtzionatzen dute eta ondoz ondoko berreskurapena ziurtatzen dute soilik.
- *Asoziabidezko anafora*. Aipatu anafora honen izaera dela eta, –aurrekariarekiko menpetasun erlatiboaz– garrantzizkoa da anafora honen kokapena zaintzea. Aurkitu diren erlaziorik arruntenak hauexek dira: *elaborazioa* eta *metodoak*; *prozesua* eta *osagaiak*; *prozesua* eta *urratsak*; etab. Fabrikazio prozesuaren testu atalean ikusi da gehienetan.
- *Aurrekari ebolutiboa duten anaforak*. Aztertu diren testuak bideratzen duten gaien izaera dela eta, maiz ikusi dira erreferente ebolutiboa duten anaforak.
- *Izenordainak*. Anafora pronominalak anafora guztien % 9,24 osatzen dute azalpenezko testuetan. Garciak (1999) ere antzeko datuak ikusi ditu testuliburuuetako testuetan: %12,02. Beraz, esango dugu euskarazko azalpenezko testuetan anafora pronominala oso gutxitan agertzen

dela. Anafora pronominalak *maila lokalean* aritzen dira soilik eta ezin dute testu fase osoan aritu. Izenordain erakuslea izan daiteke horren salbuespena (“eso” gazteleraz edo “hori” euskaraz), baina maiz arazok sortzen dira aurrekaria identifikatzeko. Euskaraz, gainera, generoa markatzen ez denez, horien funtzioa gehiago murrizten da oraindik. Euskaraz erakusleen erabilerarako emandako gomendioa (Zabala, 1996) (kataforarako “hau” “honek” erabiltzea eta anaforarako “hori” “horrek”) ez da betetzen aztertutako testuetan.

Anaforak eta testu-antolaketa. Anaforen funtzio nagusia kohesioa bada ere, ikusi dugun zenbait anafora, kontzeptualak, izenordain erakusleak, etab., testuaren antolaketa ere zeregin handia dute. Hona hemen ikusi diren zenbait ezaugarri:

- √ Kate anaforikoek faseen artean dauden nozioen loturak ziurtatu ditza-kete.
- √ Kate anaforikoen gurutzamenduak testu fase barnean gertatzen dira. Horrekin esan nahi dugu testu fase bakoitzaren barnean ematen direla kate paralelo gehienak.
- √ Konexio eta kohesio mekanismoak gainezarririk ager daitezke hizkuntza unitate beraren gainean.

8. Didaktikari begirako zenbait zertzelada

Komunikazioari dagokionez, interes handikoa da testu-kohesioa, testua ulertzea erraztu edu oztopatzen duen mekanismo erabakiorra delako.

Didaktikari dagokionez, garbi ikusi da 12 urteko ikasleek menperatzen dutela errepikapena eta anafora pronominalen erabilera hizkuntz unitate modura. Alabaina, anafora nominalek –ordezkapen lexikalak, berreskurapen partitiboak, ordezkapen lexikal biltzaileak eta anafora kontzeptualak– benetako arazoak sortzen dituztela (Rosat, 1995, Sainz 2001). Arazo horiek hainbat motatakoak dira:

- *Semantikoak*: zailtasunak ikusi zaizkie ikasleei aurrekariarekiko sinonimia, parasonimia edo hiperonimia erlazioa izango duen lexema aukeratzeko.
- *Lekutzeari dagozkionak*: anaforak bere aurrekariarekiko behar duen tartea ebaluatzea oso zaila da. Ikasleak gero eta hobeto jabetzen dira anafora nominal eta pronominalen hedakuntza gaitasun ezberdinaz. Halaber, anafora nominalen arteko batzuek (anafora kontzeptuala, anafora partitiboak,...) beste batzuekiko dituzten ezberdintasunak (determinazioa,...). Bi helburu lortu nahi dira, hala anaforaren ondoz-ondoko lekutzea saihestea –testualizazio mekanismoa hanpatu egingo dutenak– nola anafora bere aurrekariarekiko oso urrun lekutzea (irakurlea erlaziorik ez duten bi lexema modura ulertzera bideratuko duen lekutze urruna).
- *Hierarkizazioa*: nola garatzen dituzten anafora bilbe ezberdinak paraleloki –bata nagusia dena eta besteak bigarren mailakoak–. Bilbe hierarkizazioa maila ezberdinetan egiten da: a) markatze bilbeak testuaren faseen arteko artikulazioa ziurtatzen dutenak; b) fase baten ata-

len arteko artikulazioa ziurtatzen dutenak; c) fase baten barnean enunziationen antolaketa ziurtatzen dutenak.

Zailtasun horiek direla eta, hainbat ezberdintasun ikusi dira aztertutako entziklopedietako testuak eta 12 urteko ikasleen ekoizpenak alderatu direnean (Sainz, 2001, 295. or.). Oro har, bi testu multzoetan ikusitako lau ezaugarri azpimarratu nahi ditugu: loturen kopurua, loturen sendotasuna, kateen luzera eta kate paraleloen ugartasuna.

- *Loturen kopurua*: alderdi hau ikusi da anaforen dentsitatea aztertu dugunean. Oro har, ikasleen testuetan testu kanonikoetan baino *anafora gutxiago* dagoela, kate anaforiko gutxiago eta, beraz, testu barneko lotura ahulagoa dugu.
- *Loturen sendotasuna*: Honekin adierazi nahi dugu ikasleen ekoizpenetan anafora eta aurrekariaren arteko loturak ez direla askotan behar besteko sendoak, alegia, ikasleen adibidean ikusi diren tankerakoak (“han” eta “fabrika” artean, esaterako). Loturen ahultasun hori faktore ezberdinengatik izan daiteke: *testuan aurrekaria eta anaforaren arteko distantzia edo kokapena, semantikoki aurrekaria betea ez delako, semantikoki anafora eta erreferentea ordezkak ezinak direlako, anaforak aurrekaririk ez duelako*, etab.
- *Kateen luzera*: Badirudi, testu kanonikoetako kate anaforikoak ikasleen ekoizpenetan ikusitakoak baino luzeagoak direla, testuaren atal luzeago bat zeharkatzen dutela, alegia.
- *Kate paraleloak*: Gauza bera gertatzen da testu atal berean gurutzaturik agertzen diren kate anaforikoekin. Badirudi horietako gehiago ematen direla testu kanonikoetan ikasleen testuetan baino. Gurutzamendu horiek egiteko zailtasunak ikusita, 11-12 urteko ikasleen ikas-kuntza prozesuaren uneari leporatzen dizkiogu diferentziak.

Bukatzeko, esan daiteke ikusitako ezberdintasun horiek bat datozela testuari berari erreferentzia egiteko idazleak dituen zailtasunekin; bestalde, ikasleek dituzten zailtasunak, oro har, lotu daitezke artikuluen honen hasieran erabili ohi ditugun ohar didaktiko generikoekin: “anbiguotasuna”, “lexiko pobrea” “ez da ulertzen” “gehiago zehaztu” etab.

Oharrak

- 1 Frantsesetik itzulia.
- 2 De Weck (1991) autoreak testuan gaia lehendabiziko aldiz sartzeko erabiltzen du **erreferente** hitza.
- 3 Ainguraketa diskurtsiboak testu-motarekin du zerikusia: nolako lotura dago diskurtsoarean eta berau ekoiztua izan den enuntziatio-egoeraren artean? Modu diskurtsiboari dagokionez: inplikatu ala autonomoa da? eta mintzagaiari dagokionez: konjuntua ala disjuntua da? Lau horien konbinaketaz lau diskurtso-mota sortzen dira:
 - Elkarrekintzako diskurtsoa, Kontaketa, Diskurtso Teorikoa eta Narrazioa. (Bronckart, 1985, 43. or. eta Bronckart, 1996, 159. or.)
 - 4 De Weck eta Schneuwly-k (1994) diotenez, argudioan kohesioa bigarren mailako mekanismoa dugu. Testu-mota honetan sartzen diren gaiak asko izanik, oso hedapen laburra daukate testuan zehar. Fenomeno honen kontra jarria dugu azalpeneko testuan gertatzen dena, bertan gai iraunkorra izateaz gain, oso hedapen luzea daukate gaiak testuan, oso arrunta baita testu osoa edo testu fase osoa zeharkatzen duten anafora-bilbeak ikustea.

Bibliografia

- Adam, J. M.** 1990. *Éléments de linguistique textuelle*, Liège, Mardaga.
- Adam, J. M.** 1992. *Les textes: types et prototypes*. Récit, description, argumentation, explication et dialogue, Paris: Nathan, 223. or.
- Berrendoner, A.** 1994. Anaphore confuses et objets indiscrets, *Recherches linguistiques*, vol. XIX, 209-230, Paris, Klincksieck.
- Blanche-Benveniste, C. & Chervel, A.** 1966. Recherches sur le syntagme substantif, *Cahiers de Lexicologie*, IX (2), 3-37.
- Bronckart J. P.** 1996. *Activité langagière, textes et discours*, Paris, Delachaux et Niestlé.
- Bronckart, J. P., Bain, D., Schneuwly, B., Davaud, C., & Parquier, A.** 1985. *Le fonctionnement des discours. Un modèle psychologique et une méthode d'analyse*, Paris: Delachaux & Niestlé.
- Brown, G., & Yule, G.** 1983. *Discourse analysis*, Cambridge Text Books in Linguistics, 190-222. [Itzul.: (1993). *Análisis del discurso*, Madrid: Visor Libros.].
- Charolles, M.** 1993. Coréférence et identité. Le problème des référents évolutifs, *Langages*, 112: 106-126.
- Charolles, M. & Schneckedecker, C.** 1993. Coréférence et identité. Le problème des référents évolutifs, *Langages* 112: 106-126.
- De Weck, G.** 1991. *La cohésion dans les textes d'enfants*, Neuchâtel, Paris, Delachaux & Niestlé.
- De Weck, G. & Schneuwly, B.** 1986. *Cohesion operations in 4 types of text written by children 10, 12 and 14 years olds*. Communication à la II. nd European Conference on Developmental Psychology, Symposium "Text, memorization and production", Rome.
- Descombes, M. & Jespersen, J.** 1992. L'anaphore conceptuelle dans l'argumentative écrite, *Pratiques*, 73, 79-95.
- Garcia, I.** (1999). Elementu anaforikoak eskolako testuetan. *Fontes Linguae Vasconum*, 82: 393-417.
- Gundel, J., Herdberg, N. & Zacharsky, R.** 1993. Cognitive status and the form of referring expressions in discourse, *Language*, 69/2: 274-307.
- Kleiber, G.** 1994. *Anaphores et pronoms*, Duculot, col. Champs linguistiques.
- Kleiber, G.** 1999. Anaphore associative et relation partie-tout: Condition d'aliénation et principe de congruence ontologique, *Langue Française*, 122: 70-100.
- Kleiber et alii.** 1994. Discours et stéréotypie: le contexte peut-il remettre d'aplomb une anaphore associative?, non: C. Schneckedecker et alii. (eds.), *La anaphore associative. Aspects linguistiques, psycholinguistiques et automatiques*, Paris, Klincksieck (93-116).
- Larrigan, L. M.** 1998. Testuen analisirako zenbait nozioren bidean, non: I. Idiazabal & L.M. Larrigan (koord.), *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratzte baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*, Gasteiz, EHU/UPV (47-94).
- Prince, E.** 1981. Toward a taxonomy of given-new information, non: Cole (ed.), *Radical pragmatics*, New York, Academic Press (223-256).
- Reichler-Beguelin, M.** 1988a. Anaphore, cataphore et mémoire discursive, *Pratiques*, 57: 15-45.
- Reichler-Beguelin, M.** 1988b. Norme et textualité. Les procédés référentiels considérés comme deviants en langue écrite, non: G. Schöeni, J.P. Bronckart & P. Perrenoud (eds.), *Normes et activité langagière. La langue est-elle gouvernable?*, Neuchâtel, Delachaux et Niestlé, 185-216.
- Riegel, M., Pellat, J.C. & Rioul, R.** 1994. *Grammaire méthodique du Français*, Paris: PUF.
- Rosat, M. C.** 1995. *Un texte explicatif documentaire. Une expérience d'enseignement à élèves de 6^e année scolaire*, Thèse de doctorat non publiée, Université de Genève, FPSE.
- Sainz Osinaga, M.** (2001). Azalpenezko testu entziklopedikoaren azterketa eta didaktika, Donostia, Erein.
- Schneckedecker, C., Charolles, M., Kleiber, G. & Ujma, L.** (eds.) 1994. *L'anaphore associative. Aspects linguistiques, psycholinguistiques et automatiques*, Paris: Klincksieck.
- Schneuwly, B. & Bronckart, J. P.** 1986. Connexion et cohésion dans quatre types d'enfants, *Cahiers de Linguistique Française*, 7: 279-294.
- Zabala, I.** 1996, Testu-lotura: Lotura tematikoa eta erreferentzia-sareak testu teknikoetan, non: I. Zabala (koord.), *Testu-loturarako baliabideak: Euskara teknikoa*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 15-43.

Testuak

Aurten bai Fundazioa. 1996. Planeta Entziklopedia, *Teknologia*.

Aurten bai Fundazioa. 1996. Planeta Entziklopedia, *Jakintza Arloa*.

Aurten bai Fundazioa. 1996. Planeta Entziklopedia, *Lurraren zientziak*.

Eusenor. 1995. *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*.

Eusenor 1992. *Gazteen Entziklopedia*.

HABE. 1996. *Hizpide*, 36. zenb.

Ihardun & Abril. 1991. *Lehen Hiztegia*.

Lur. 1991-1994. *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*, Lur Argitaletxea.

Lur. 1998. Lur Entziklopedia tematikoa. *Fisika-Kimika*, Lur Argitaletxea.

Lur. 1998. Lur Entziklopedia tematikoa. *Izadi Jakintza*, Lur Argitaletxea.

Zabaleta, P. (1994). *Ukoreka*, Txalaparta